



2024/2025EKO LEKUALDATZE-LEHIAKETAK

GEHIEN EGITEN DIREN GALDERAK

(2024, urria)

OHAR OSO GARRANTZITSUA: 2024/11/04ko EHAAAn argitaratutako deialdiaren I., IV. eta V. eranskinek akatsak dituzte. Eranskin zuzenak argitaratu dira Hezkuntza Sailaren webgunean. <https://www.euskadi.eus/langile-irakasle-lekualdatze-lehiaketak-maisuak-maistrak/web01-a3hhlair/eu/>

- 1. PARTEHARTZAILEAK**
- 2. ESKABIDEAK**
- 3. MEREZIMENDUAK**
- 4. PLAZA ELEBIDUNAK**
- 5. IKASTETXEA AUKERATZEKO LEHENTASUNA**
- 6. HERRIA AUKERATZEKO LEHENTASUN-ESKUBIDEA**
- 7. ZAILTASUN BEREZIKO IKASTETXEAK**
- 8. ESLEIPENAK**
- 9. OROKORRAK**

1. PARTEHARTZAILEAK

1.1. Lekualdatze-Lehiaketako partehartzaileak

Honako kidego hauetan irakaskuntza ematen duten kidegoak (irakasleak):

0597 MAISU-MAISTRAK
0511 BIGARREN HEZKUNTZAKO KATEDRADUN
0590 BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEAK
0591 DESAGERTZEAR DAUDEN LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASLE TEKNIKOAK
0512 HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALETAKO KATEDRADUN
0592 HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALETAKO IRAKASLEAK
0593 MUSIKA ETA ARTE ESZENIKOKO KATEDRADUN
0594 MUSIKA ETA ARTE ESZENIKOKO IRAKASLEAK
0598 LANBIDE HEZIKETAKO SEKTORE BEREZIETAKO IRAKASLE ESPEZIALISTAK
0513 ARTE PLASTIKO ETA DISEINUKO KATEDRADUN
0595 ARTE PLASTIKO ETA DISEINUKO IRAKASLEAK

1.2. NORK parte hartu DEZAKE Lehiaketan? BORONDATEZKO PARTE-HARTZEA

Deialdiko hamargarren oinarrian ezartzen da borondatez parte hartu ahal izango dutela Euskal Autonomia Erkidegoaren mendeko maisu-maistren kidegoetako (597) eta gainerako kidegoetako (511, 590, 591, 512, 592, 593, 594, 513, 595 eta 598) karrerako funtzionarioek, baldin eta honako egoera hauetakoren batean badaude, eta dagokien parte-hartze modalitatea bete beharko dute eskabidean:

- Zerbitzu aktiboan, zerbitzu berezietan edo lanpostua gordeta duen eszedentzian egotea, baldin eta behin betiko betetako azken destinoaz jabetu zirenetik aurtengo ikasturtearen amaiera arte (2025eko abuztuaren 31) gutxienez bi urte igaro badira. (Parte hartzeko modalitatea: "A")
- Borondatezko eszedentzian, betiere behin betiko lehen destinoa lortu badute. Norberaren interesarengatik edo familia elkartzeko borondatezko eszedentzia-kasuetan, parte hartu ahal izateko, ikasturte hau amaitzean (2024ko abuztuaren 31) bi urte igaro behar dira egoera horretara igaro zirenetik. (Parte hartzeko modua: Bzenb)
- Eginkizun-etenaldian, gehienez ere sei hilabetez, betiere aurtengo ikasturtea amaitzean (2025eko abuztuaren 31) etendurako diziplina-zehapenaren iraupena amaitu bada eta behin betiko azken destinoaz jabetu zirenetik gutxienez bi urte igaro badira. (Parte hartzeko modalitatea: "A")

Autonomia-erkidegoko lehiaketetan, autonomia-erkidego honen mendeko lanpostuak bakarrik eskatu ahal izango dira. Estatuko lekualdatze-lehiaketetan, beste autonomia-erkidego batzuen mendeko lanpostuak ere eskatu ahal izango dira.

1.3. NORK parte hartu BEHAR du Lehiaketan? DERRIGORREZKO PARTE-HARTZEA

Deialdiaren hamaikagarren oinarriaren arabera, **Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren kidegoetako (597) eta gainerako kidegoetako (511, 590, 591, 512, 592, 593, 594,**



513, 595 eta 598) funtzionarioek parte hartu behar dute nahitaez, baldin eta behin betiko destinorik ez badute eta oinarri horretan deskribatutako kasuren batean badaude. Horretarako, beren egoerari dagokion parte-hartze modalitatea bete beharko dute eskabidean, jarraian azaltzen diren taulen arabera.

PARTE HARTZEKO MODALITATEAK	
KODEA	DESKRIBAPENA
C	Disziplina-espedientearen ebazpen irmoa
D	Sententzia edo errecurso-ebazpena betetzeagatik
E	Betetzen zuten behin betiko lanpostua kendu edo aldatzea
F	Behin-behineko destinoarekin itzultzeagatik
G	Nahitaezko eszedentziagatik
H	Zigorra bete ondorengo funtzio gabetzeagatik
I	Behin betiko izaeraz betetzen zenuen lanpostua galtzea ekarri duten antzerako arrazoengatik
J	Karrerako funtzionarioa, behin betiko destinoa inoiz izan ez duena
K	Hautaketa-prozedura batean hautatua (praktiketako funtzionarioa / praktiketetatik salbuetsia), oraindik karrerako funtzionarioa izendatua ez dena izan

1.4. Zer gertatzen da irakasle bat parte hartzera behartuta badago eta parte hartzen ez badu?

Deialdiaren hamahirugarren oinarriko 1. eta 2. apartatuek ezartzen dute «C», «D», «E», «F», «I», «J» eta «K» modalitateetako irakasleei, parte hartzen ez badute, destinoa ofizioz esleitu ahal izango zaiela, baldin eta plaza hutsik badago edo hutsik geratzen bada, dokumentu honen 8.6 apartatuan aipatzen diren berezitasunekin.

Eskaeran parte hartu duenak adierazi digun **lurraldean/probintzian** soilik esleitu ahal izango da ofizioz. Bat ere adierazi ez bada, ofizioz esleitu ahal izango da 2024-2025 ikasturtean jardunean dagoen lurraldean.

1.5 2023/2024 lekualdatze-lehiaketan behin betiko destinoa lortu zuten funtzionarioek 2024ko/2025eko lekualdatze-lehiaketa honetan parte har dezakete?

Ez. 2025/2026 lekualdatze-lehiaketaren zain egon behar du. Izendapenen artean bi ikasturte igaro behar dira, behin betiko destinoa galdu dutenean izan ezik; kasu horretan, nahitaez parte hartu beharko dute.

Lekualdatuak badira, nahi izanez gero bakarrik parte hartu ahal izango dute.

2. ESKABIDEAK

2.1 Zein de eskabidea aurkezteko epea?

2024ko aAzaroaren 5etik, astearte, azaroaren 26ra arte, astearte (biak barne).

2.2 Zer ESKAERA erabili behar da parte hartzeko?

Lekualdatze-lehiaketan parte hartzeko, Hezigunea atarian eskuragarri dagoen eskabide elektronikoa bete beharko da. Interneteko helbide honetan sartu beharko da bertara: <https://hezigunea.euskadi.eus> (NAN eta pasahitza sartu) - Eremu pertsonala / Izapideak langileen sailarekin / Lekualdatze Lehiaketa / ONARTZEKO ESKABIDEA

Eskaerak egiteko, aplikazio informatikoak zentroen, herrien eta espezialitateen kodeak ematen ditu. Kode horiek bat datoz espezialitateen taulan (IV Eranskina) eta ikastetxeen zerrendetan (II Eranskina) agertzen direnekin. Kode horiek zuzenean jaso daitezke, edo zerrenda zabalgarri batetik hautatu.

Parte-hartzaileek parte hartu nahi duten plaza moten (espezialitateak) kodea bete beharko dute, eta ondoren, **lehentasun-ordenaren arabera**, eskatzen dituzten plazen eskaerak (gehienez 300 eskaera).

Aplikazioaren hasierako orrian, eskabidea betetzeko eta eskaerak egiteko jarraitu beharreko urratsak azaltzen dituen **erabiltzailearen eskuliburu** bat kontsultatu eta deskargatu ahal izango da.

Hala ere, eskatutako plaza bakoitzerako honako hauek jaso beharko dira:

1. **Ikastetxearen kodea** (8 digitu) edo **herriaren** kodea (9 digitu).
2. **Lanpostu-mota edo espezialitatea** (2 digitu Maisu-maistrak kidegoan, 3 digitu beste kidegoetan)
3. **Plazaren izaera elebiduna (hala badagokio)**: 1 frantseserako, 2 ingeleserako, 3 alemanarako (hiru kasuetan gainerako kidegoetarako bakarrik). Ez da aplikatzen maisu-maistren lekualdatze-lehiaketan.
4. **Plazaren izaera ibiltaria (hala badagokio)**: BAI (Ibiltari izaera) edo EZ (Ibiltari ez). Bigarren Hezkuntzako kidegoan HHletako Hezkuntza Orientazioko plazak ibiltariak dira. Maisu-maistren kidegoaren barruan hainbat lanpostu ibiltari daude.

2.3 Maisu-maistren kidegoko funtzionarioa naiz. Bigarren Hezkuntzako ikastetxe batean plaza eska dezaket?

Bigarren Hezkuntzako Institutuetan behin betiko destinoa duten maisu-maistren kidegoko funtzionarioek edo lanpostu horietatik kendu direnek eta dagokien espezialitatea dutenek baino ezin izango dituzte eskuratu DBHko 1. eta 2. mailetako lanpostuak.

DBHko lehen zikloko Pedagogia Terapeutikoko lanpostuetara espezialitate horretako irakasle titularrak aurkez daitezke, DBHra atxikita egon beharrik gabe.

2.4. Behin betiko destinoa BHI batean daukat. Gaituta nagoen plazak eska ditzazket Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan? Zer ondorio izango lituzke Lehen Hezkuntzako ikastetxe batean plaza lortzeak?

Bai, baina Lehen Hezkuntzako ikastetxe batean plaza lortzen badu, DBHko 1. eta 2. mailako lanpostu hutsak betetzeko aukera galtzen du aurrerantzean.

2.5. Parte hartzeko eskabidean, nola betetzen ditut elebitasunaren aukerak?

- Lanpostu elebidunak eskatuz gero, eskabidean, Elebitasun eremuan adierazi beharko da, 1. aukera «Frantsesa» 2. «Ingelesa» 3. «Aleman».
- Ikastetxe edo herri berean lanpostu bat eskatzen bada modalitate elebidunean zein ez-elebidunean, zentroa edo herria, espezialitatea eta hizkuntza-eskakizuna errepikatu beharko dira, eta Elebitasuna eremuan adierazi, lehenengo kasuan 1. aukera. «Frantsesa», 2. «Ingelesa» eta/edo 3. «Aleman», eta bigarren kasuan, 0 adierazi beharko da. «Elebitasunik gabe».
- Frantsesa, Ingelesa edo Alemana espezialitateei dagozkien eskaerak ez dute inola ere elebitasun-koderik eramango: 0 izango dira: Elebitasunik gabe.

2.6. Parte hartzeko eskabidean, nola betetzen ditut Ibiltari aukerak?

- Ibiltari lanpostuak eskatzen dituzten maisu-maistren kasuan, «BAI» adierazi beharko dute «Ibiltaria» atalean.
- Gainerako kidegoetarako, Hezkuntza Orientazioko espezialitaterako (018) ibiltaria duten plazak soilik egongo dira HHE ikastetxeetan.
- Ikastetxearen kodea ibiltari-laukian BAI batekin jartzen badu, plaza ibiltaria eskatuko du; ibiltari-laukian EZ jartzen badu berriz, ibiltari gabeko plaza bat eskatuko du. Bi plazak eskatu nahi badituzu, ibiltari eta ibiltari gabe, ikastetxearen kodea eta espezialitatea bi aldiz adierazi behar dituzu, horietako batean ibiltari-laukia BAI markatuz eta bestean ibiltari-laukian EZ markatuz.

Centro/Localidad Sólo centros y locali

Especialidad Perfil lingüístico

Itinerante

«Onartu» botoiari ematean, IT. 1 gisa agertuko da.

Peticiónes 001-060				
OR.	CENTRO O LOCALIDAD	ESP.	PL.	IT.
001	01000019C	031	D	1

2.7. Zer plaza eska ditzazkete praktiketako funtzionarioek lekualdatze-lehiaketan?

Praktiketako funtzionarioak behartuta daude hautaketa-prozesua gainditu duten espezialitateari dagozkion lanpostu guztiak eskatzera.

Era berean, beren espezialitatean elebitasuna (ingelesa, frantsesa) duten plazak eskatu ahal izango dituzte borondatez, baldin eta perfil horren egiaztagiria aurkezten badituzte edo Hezigunean titulazioen artean dagoela alegatzen badute.

Ezin dute beste espezialitate-koderik eskatu, oposizioko espezialitatearena izan ezik.



2.8. Behin-behineko destinoa duten eta behin betiko lehen destinoa lortu ez duten funtzionarioek zer plaza eska ditzakete?

Funtzionario hauek oposizioko espezialitatean baino ezin dute parte hartu (PTE eta kultura klasikoa izan ezik). Eskabidean oposizioko espezialitatea soilik zabalduko zaie, adierazitako salbuespenekin.

Behartuta daude hautaketa-prozesua gainditu duten espezialitateari dagozkien lanpostu guztiak eskatzera. Hori egin ezean, eskatu ez duten eta jardunean dauden Lurralde Historikoko ikastetxe batean nahitaezko plaza bat esleitu ahal izango zaie.

Era berean, beraien espezialitateko eta elebitasuneko (ingelesa, frantsesa) plazak eskatu ahal izango dituzte borondatez, baldin eta hizkuntza hori egiaztatzen duten agiriak aurkezten badituzte edo Heziguneko titulazioen artean dagoela alegatzen badute.

2.9. Behin-behineko destinoa duten eta aurretik behin betiko destinoa lortu duten funtzionarioek zer plaza eska ditzakete?

Funtzionario hauek honako hauek eska ditzazkete:

- Hautaketa-prozesua gainditu duten espezialitateko lanpostuak eta hizkuntza.
- Espezialitateak aitortzeko prozeduraren bidez, gerora onartu diren beste espezialitate batzuetako plazak, espezialitateak aitortzeko prozeduraren bidez.

2.10. Zer plaza eska dezakete berriki egindako egonkortze-prozesuetatik datozen karrerako funtzionarioek?

Aurreko lekualdatze-lehiaketan destinatorik lortu ez duten karrerako funtzionarioak behin-behineko lanpostu batean ari dira lanean. Beraz, lehen behin betiko destinoa lortu ez duten karrerako funtzionarioentzat adierazitako baldintza berberetan bete ahal izango dituzte plazak (ikus 2.8 atala).

2.11. 2019an egindako hautaketa-prozesuetan hautatua izan nintzen, eta oraindik ez daukat behin betiko destinatorik. Eska al ditzaket Lehen Hezkuntzako plazak edo gaituta nagoen beste espezialitate batzuetakoak, kidegoan sartu nintzen espezialitateaz bestelakoak?

Ez. Behin betiko lehen destinoa lortu behar du kidegoan sartu zeneko espezialitatean, oposizioaren bidez, parte hartu ahal izateko eta jada aitortuta dagoen beste espezialitate bat eskatu ahal izateko.

2.12. Ez dut herrien goitibehera-koadroan aurkitzen eskatu nahi dudan ikastetxea. Zer egiten dut?

Aurkitu ikastetxe zehatzaren kodea deialdiaren aginduaren II. eranskinean (2024ko azaroaren 4ko EHAA), eta sartu aplikazioan.


EHAAko deialdiaren pdf.-an bilaketa errazteko, ikastetxeak bila ditzakezu, "Bilatu" aukerarekin edo Ctrl+F tekla-konbinazioaren bidez.

Hori gertatzen da herrien ohiko izena ez datorrelako bat EHAAn lekualdatze-lehiaketarako agertzen denarekin, azken informazio hau EUSTATetik ateratzen dugu.

2.13. 2021eko edo lehenagoko lekualdatze-lehiaketan parte hartu nuen? Deialdi horretan egin nituen ikastetxeen eskaerei eutsi diezaieket?

Ez. Berrirori egin behar dituzu espezialitateen eta zentroen eskaerak deialdi bakoitzean.


2.14. Noiz da baliozkoa nire eskabidea??

Eskaera osorik bete ondoren,  ikonoa sakatu beharko duzu (goiko eskuineko izkinan dago, bai plazak hautatzeko pantailan, bai ofiziozko esleipenerako nahitaez bete beharreko pantailan), eta parte hartzeko eskaeraren hasierara iritsiko da.

Hemen eskabidea izapidetu duzun kidegoaren "Oniritzia" botoia hautatu behar duzu; bestela, zure eskaerak ez du baliorik izango.

"Oniritzia" botoia hautatu ondoren, inprimatu edo gorde ahal izango duzun dokumentu bat irekiko da. Eskaeraren frogagiria da.

2.15. Nola egiazta dezaket nire eskaera behar bezala egin dela?



Klik eginez, dagoeneko erregistratuta dagoen eskaeran sartuko zara, eta bertan egiaztatu ahal izango duzu. Behin oniritzia emanda inprimatu eta/edo gorde ahal izan dituzun dokumentu-orrietan, beheko eskuineko izkinan, eskaera baliozkotu den eguna eta ordua agertzen dira.

Ez nahastu ZIRRIBORROarekin, eskaera baliozkotu aurretik atera daiteke, eta ur-marka bat du ZIRRIBORROA hitzarekin, baina balidazio-data eta -ordurik gabe beheko eskuineko izkinan. "Zirriborro" honek ez du baliorik eskaeraren ondorioetarako.

2.16. Eskabidea formalizatu dut. Dokumentu honi buruzko zuzenketak egin ditzaket?

Aplikazioak ez dizu uzten inolako aldaketarik egiten.

Parte hartzeko eskabideak betetzeko epea amaitu ez bada, eta edozein arrazoi dela medio, eskabidea baliozkotu arren aldatu nahi baduzu, **eskabidea berriro irekitzeko** eskatu beharko duzu. Horretarako, mezu elektronikoa bat bidali beharko duzu helbide honetara: **reabrirsolicitud@hezkuntza.net**, parte-hartzailearen NAN zenbakia, izen-abizenak, harremanetarako telefono-zenbakia (mugikorra) eta zein kidegotatik parte hartzen duzun adieraziz.

Berriz irekitzeko 2024ko azaroaren 26ko arte jasotako eskaerei erantzungo zaie.

2.17. Desagertzeaz dagoen Lanbide Heziketako irakasle teknikoaren kidegoko irakasleek (591) zer lanpostu eska ditzakete?

Desagertzeaz dagoen Lanbide Heziketako irakasle teknikoaren kidegoko irakasleek (591) eskatu behar dituzte titular diren espezialitateetako lanpostuak, nahiz eta espezialitate horiek gaur egun beste irakasle-kidego batekoak izan.

Parte hartzeko eskabidean, parte-hartzailearen kidegoaren ordean (591), adierazi beharko da zer kidegotakoak diren lortu nahi diren lanpostuak; hau da, Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoa (590) edo Lanbide Heziketako sektore berezietako irakasle espezialisten kidegoa (598), espezialitatearen arabera.

2.18. Desagertzeaz dagoen Lanbide Heziketako irakasle teknikoaren kidegoko (591) irakasle batek destinoa lortzen badu 590 kidegora aldatu den lanpostu batean, automatikoki integratuko da 590 kidegoan?

Ez, 590 kidegoan sartzeko, beharrezkoa da integrazio-prozedurari jarraitzea; hain zuzen, AGINDUA, 2023ko martxoaren 30ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, desagertuko den lanbide-heziketako irakasle teknikoaren kidegoko irakasleak bigarren hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko prozedurarako deialdia egiten duena, eta AGINDUA, 2023ko maiatzaren 3koa, Hezkuntzako sailburuarena, Irakasleak Hautatu eta Betetzeko zuzendariaren 2026ko urtarrilaren 19ra arteko prozedura irekirako deialdia egiten duena.

2.19. Zer plaza eska ditzake Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan (590) integratutako funtzionario batek, titular baldin bada Lanbide Heziketako sektore berezietako irakasle espezialisten kidegoko (598) espezialitate batean?

Desagertzeaz dagoen Lanbide Heziketako irakasle teknikoaren kidegotik (591) datozen irakasleak, sartu badira Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan (590), eta titular badira espezialitate hauetakoren batean:

- Sukaldaritza eta Pastelgintza
- Estetika
- Zurgin-lanen eta Altzarien Fabrikazioa eta Instalazioa
- Ibilgailuen mantentze-lanak
- Makinen mekanizazioa eta mantentze-lanak
- Patroigintza eta jantzigintza
- Ile-apainketa



- Arte Grafikoetako Ekoizpena
- Jatetxe Zerbitzuak
- Soldadura

Orduan, eska ditzakete, zein espezialitatetan diren titular, horri dagozkion lanpostuak, nahiz eta espezialitate horiek izan gaur egun Lanbide Heziketako sektore berezietako irakasle espezialisten kidegokoak (598).

Parte hartzeko eskabidean, parte-hartzailearen kidegoaren orde (590), jarri behar da Lanbide Heziketako sektore berezietako irakasle espezialisten kidegoa (598), kidego horretakoak baitira lortu nahi diren lanpostuak.

3. MEREZIMENDUAK

3.1 Zer merezimendu baloratzen diren deialdiko I. eranskinean jasotako baremoan?

Eskabideak aurkezteko epea amaitu arte (2024ko azaroaren 26a) amaitutako eta egiaztatutako merezimenduak baino ez dira baloratuko, baldin eta epe horren barruan egiaztatzen badira.

3.2 Zer DOKUMENTAZIO aurkeztu behar da eskabidearekin batera?

Eskabidearekin batera, merezimenduen baremoko merezimenduak justifikatzeko agiriak aurkeztu beharko dira (I. eranskina).

Eranskin horretan adierazten da Administrazioak ofizioz zer atal barematzen dituen. Kasu horretan, ez da beharrezkoa izango egiaztatzea.

Eskabidearekin batera alegatu ez diren merezimenduak ez dira kontuan hartuko, ezta eskabidea aurkezteko epean agiri bidez justifikatzen ez direnak ere.

Parte-hartzaileek deialdi honetan parte hartzeko eskatzen diren baldintzak bete beharko dituzte, eskabidean adierazitako **datu guztiak egiazkoak** direla eta jatorrizkoak ez diren **agiriak egiazkoak direla egiaztatu** beharko dute (jatorrizko agirien kopia zehatza). Nolanahi ere, Administrazioak edozein unetan eska diezaiokie jatorrizko dokumentazioa.

Edozein datu edo dokumentutan funtsezko zehaztugabetasunik, faltsutasunik edo omisiorik izanez gero, prozesu honetatik eratorritako eskubide guztiak galduko dira, egon daitezkeen erantzukizunak alde batera utzita, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

3.3 Dokumentu konpultsatuak aurkeztu behar ditut?

Ez. Alegatutako dokumentuen fotokopia sinpleak entregatzeak balio du.

3.4 Zer sartzen du ofizioz Administrazioak?

a) Honako atal hauetan aurreikusitako merezimenduak: (baldin eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailean eman badira ez du ezer alegatu edo aurkeztu behar. Bestela, hezkuntza-administrazio eskudunak emandako zerbitzu-orria aurkeztu beharko da.)

1.1.1. (Parte hartzen deneko ikastetxean behin betiko destinoarekin karrerako funtzionario gisa etenik gabe iraun den urte bakoitzeko).

1.1.2. (Aldi baterako egoeran karrerako funtzionario gisa egindako urte bakoitzeko, betiere egoera horretatik parte hartzen bada).

1.1.3. (Zailtasun berezikotzat sailkatutako lanpostu edo ikastetxeetan karrerako funtzionario gisa egindako urte bakoitzeko, I. eranskineko bigarren xedapen osagarrian jasotako egoeraren batean badago.)

1.2.1. (Lanpostu hutsari dagokion kidegoan edo kidegoetan karrerako funtzionario, praktiketako funtzionario edo bitarteko funtzionario gisa zerbitzu aktiboan emandako benetako zerbitzuen urte bakoitzeko).

1.2.2. (Hezkuntzari buruzko Lege Organikoak aipatzen dituen irakaskuntzako beste kidegoetan karrerako funtzionario, praktiketako funtzionario edo bitarteko funtzionario gisa benetan emandako zerbitzuak, azpitalde bereko edo goragokoak, urte bakoitzeko)

1.2.3. (Hezkuntzari buruzko Lege Organikoak aipatzen dituen irakaskuntzako beste kidegoetan karrerako funtzionario, praktiketako funtzionario edo bitarteko funtzionario gisa benetan emandako zerbitzuak, beheragoko azpitaldekoak, urte bakoitzeko)

2 (Katedradunen kidegokoa izatea)

4.1/4.2 Zuzendaritza-karguak betetzea (justifikazio-agirietan adierazitako karguzerrenda).

b) Lehiatzen deneko kidegoari dagokion espezialitate bakoitzeko, baldin eta kidego horretan sartzekoa ez bada eta espezialitate berriak eskuratzeko ekainaren 4ko 850/1993, otsailaren 27ko 334/2004 eta otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuetan aurreikusitako prozeduraren bidez eskuratu bada. (EPE prozeduraren bidez). 5.3 atala.

d) Ez da beharrezkoa izango I. eranskineko **5.1 eta 5.2** apartatuekin bat datozen prestakuntza-jardueren egiaztagiriak aurkeztea, baldin eta **Euskal Autonomia Erkidegoko Irakasleen Etengabeko Prestakuntzaren Erregistroan** inskribatuta badaude eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean (2024ko azaroaren 26a), eta merezimendu horiek ofizioz baloratuko dira.

Data horretan erregistro horretan inskribatu gabe dauden jarduerak parte-hartzaileak aurkeztu eta egiaztatatu beharko dira.

3.5 Zer desberdintasun dago baremo-aukeren artean?

- "**Jarraitzea**" aukera hautatu dezakezu: Ados bazaude eta parte hartu zenuen azken lehiaketan 3.1.3, 3.1.4, 4.3, 6.1, 6.3, 6.4 eta 6.6 ataletan eta gainerako ataletan (Langileen Erregistroan jasota ez egoteagatik ofizioz zenbatzen ez diren kasuetan) lortutako puntuazioari eutsi nahi badiozu. 2010-2011 lekualdatze-lehiaketatik aurrera bakarrik dago eskuragarri, hori barne.

- "**Gehitzea**" aukera hautatu dezakezu: Ados bazaude eta parte hartu zenuen azken lehiaketan 3.1.3, 3.1.4, 4.3, 6.1, 6.3, 6.4 eta 6.6 ataletan eta gainerako ataletan (Langileen Erregistroan jasota ez egoteagatik ofizioz zenbatzen ez diren kasuetan) lortutako puntuazioari eutsi nahi badiozu, eta puntuazio horri gehitu nahi dizkiozu parte hartu zenuen azken lehiaketan barematutakoak baino geroago bukatutako beste merezimendu batzuk. 2010-2011 lekualdatze-lehiaketatik aurrera bakarrik dago eskuragarri, hori barne.

- "**Barematze berria**" aukerra hautatu dezakezu: Parte hartu zenuen azken lehiaketaren deialdia baino lehenagoko merezimenduak barematzea nahi baduzu 3.1.3, 3.1.4, 4.3, 6.1, 6.3, 6.4 eta 6.6 ataletako, edo atal horietan egindako baremazioaren arabera prestakuntzarik ez baduzu.



Kasu horretan, aipatutako atal guztien egiaztagiria aurkeztu beharko dituzu, hemeretzigarren oinarrian aurreikusitakoaren arabera.

3.6 “Barematze berria” aukera bakarrik ematen dit. Ezin dut aukeratu «Jarraitzea» edo «Gehitzea» aukeratzea. Zuzena al da?

Zuzena da, honetarako BAKARRIK:

- Karrerako funtzionario izendatu eta praktiketako funtzionario zirenetik lekualdatze-lehiaketan behin betiko destinoa lortu zuten pertsonak.
- Beste erkidego batzuetatik Euskadira etorri direnetik, lekualdatze-lehiaketaren bidez, eta lehen aldiz parte hartzen dutenak.
- Praktiketako funtzionario gisa parte hartzen dutenak.
- Egonkortze-prozesuetatik datozen karrerako funtzionarioak, lekualdatze-lehiaketa batean inoiz barematu ez direlako.
- 2010/2011 lekualdatze-lehiaketatik lehen aldiz parte hartzen duten karrerako funtzionarioak. Lehen lekualdatze-lehiaketa horretatik puntuazioa arrasta daiteke.

3.7 MEREZIMENDUAK ENTREGATZEA atalean aurkeztu dut dokumentazioa, eta dokumentazio gehiago aurkeztu nahi dut. ¿Nola egin behar dut?

Merezimenduak aurkezteko epearen barruan bada, **dokumentuak aldatu eta/edo ezabatu** ahal izango dituzu.

Kasu horretan, eta merezimendua aldatu edo ezabatu ondoren, **ezinbestekoa da berriro ere "amaitu dokumentazioa eta erregistratu" sakatzea**, azken aldaketa gorde dadin. Horrek erregistroaren beste frogagiri bat sortuko du.

3.8 Bitartekoa nintzenean, zikloaren koordinazioa egin nuen. Puntuatzen al du lekualdatze-lehiaketarako?

Bai; eta Kasazioko Auzitegi Gorenaren epaiaren ondorioz, kontuan hartu beharko dira bitarteko eta praktiketako funtzionario gisa emandako zerbitzuak zikloen koordinazio horri dagokionez.

3.9. Praktiketako funtzionario gisa nengoenean, tutorea izan naiz. Ikasturte horretako tutorea izateak merezimenduetan kontutan hartuko da?

Lekualdatze-lehiaketa honetan eta ondorengoetan zenbatuko da tutoretza-karguak bitarteko edo praktiketako izanik, baina soilik LOE indarrean sartzen zenetik aurrera (2006ko maiatza).

3.10. Praktiketako funtzionarioa naiz. Merezimenduak baloratzeko egiaztagiriren bat aurkeztu behar al dut?

Ez, praktiketako funtzionarioek ez dute inolako merezimendurik aurkeztu behar. Destinoa esleituko zaie irakasleen kidegoan sartzeko hautaketa-prozeduran lortutako puntuazioaren arabera.



Salbuespen bakarra da ingeles edo frantseseko eskakizuna duen espezialitate bat eskatu nahi dutela, eta hizkuntza-ziurtagiria ez dagoela jasota titulazioen erregistroan. Kasu horretan, egiaztatu egin beharko duzu.

3.11. Parte hartu nuen lekualdatze-lehiaketaren azken deialdian ezin izan nuen merezimendu bat aurkeztu. Aurten aurkez dezaket?

Aurkeztu ez zenuen merezimendua, parte hartu zenuen azken lekualdatze-lehiaketa baino lehen burutu bazen, «Barematze berria» aukera hautatu behar duzu, eta dokumentazio guztia berriro aurkeztu, guztia kontuan har dadin.

«Gehitzea» hautatuz gero, parte hartu zenuen azken lekualdatze-lehiaketaren ondoren bukatutako merezimenduak soilik hartuko dira kontuan.

3.12. Oposizioetako epaimahaiko kide izan naiz. Nola justifikatu behar dut, lekualdatze-lehiaketan merezimendu gisa kontutan hartzeko? Agiriren bat aurkeztu behar dut?

Ez da beharrezkoa dokumentazioa aurkeztea epaimahaia Euskal Autonomia Erkidegoaren kudeaketa-eremuaren barruan eratu bazen, Administrazioak ofizioz esleituko baitio puntuazioa. Aldiz, epaimahaia ez bazen Euskal Autonomia Erkidegoaren kudeaketa-eremuan eratu, deialdiaren ebazpenaren baremoko (I. eranskina) 6.5 atalean adierazitakoaren arabera egiaztatu beharko da.

Edonola ere, otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretua (martxoaren 2ko BOE) indarrean jarri ondoren eratutako epaimahaietan parte hartzea baino ez da baloratuko.

3.13. Nola kontsulta ditzaket Euskal Autonomia Erkidegoko Irakasleen Etengabeko Prestakuntzaren Erregistroan inskribatutako ikastaroak?

Euskal Autonomia Erkidegoko Irakasleen Etengabeko Prestakuntzako Erregistroan inskribatutako ikastaroak kontsultatzeko, www.hezigunea.eus/Eremu_pertsonala/Nire_prestakuntza_atalera jo behar duzu. "Nire ikastaro guztiak ikusi" laukian.

3.14. Eskabidearekin batera aurkeztu nuen merezimenduetako bat ez zait kontuan hartu behin-behineko baremazioan. Zer egin behar dut?

Behin-behineko ebazpenaren baremoaren aurkako erreklamazioa aurkez dezakezu, horretarako ezarritako epearen barruan, eskabidearekin batera aurkeztutako merezimenduak argitzen dituzten agiriak erantsiz.

3.15. 2010-2011 ikasturtetik aurrera deitutako lekualdatze-lehiaketetan lortutako puntuazioak berretsiko al dira?, 2010-2011 barne?

Bai, berretsi egingo da lehiakideak parte hartu zuen azken lekualdatze-lehiaketari dagokion puntuazioa, merezimenduen baremoko I. atala izan ezik, ofizioz baloratuko baitu Irakasleen Hautaketa eta Hornikuntza Zerbitzuak, baldin eta honako aukera hau hautatu badute: «Jarraitzea» eta «Gehitzea».

3.6 atalean adierazitako langileak salbuetsiko dira.

3.16. Funtzionario irakasleek jakin al dezakete zer puntuazio lortu duten lekualdatze-lehiaketetan eta zer puntuazio berritsiko den?

BAI. Albisteen postontzia atalean, <https://hezigunea.euskadi.eus> Interneteko helbidean (NAN eta pasahitza sartu) – Eremu pertsonala / Izapideak langileen sailarekin / Lekualdatze Lehiaketa. "Aurreko lehiaketen puntuazioa" izeneko dokumentua da.

3.17. Puntuazioa berretsiko zaien parte-hartzaileek merezimendu berriak aurkez ditzakete?

Bai, baina soilik «Gehitzea» aukera hautatuz gero. Kasuan kasuko lekualdatze-lehiaketaren deialdirako eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren betetako merezimenduak soilik aurkeztu ahal izango dituzte (parte hartu zuen azken lekualdatze-lehiaketa).

3.18. Zer egin behar dute parte hartu zuten lekualdatze-lehiaketako azken puntuazioa berretsi nahi ez duten parte-hartzaileek, harekin ados ez daudelako edo parte hartu zuten azken deialdiko eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik bukatutako merezimendu berriak aurkeztu nahi dituztelako?

«Barematze berria» aukera hautatu beharko dute, eta ofizioz zenbatuko ez diren merezimendu guztiak berriro aurkeztu beharko dituzte.

3.19. Zer Master edo Masterrak baloratzen da 3.1.2. atalean?

Atal honetan, urtarrilaren 21eko 56/2005 Errege Dekretuaren, urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuaren edo abuztuaren 5eko 1002/2010 Errege Dekretuaren arabera egindako master bakoitza zenbatuko da.

3.20. Zer hizkuntza-titulu baloratzen dira merezimenduen baremoko 3.3 apartatuan?

Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako tituluak edo ziurtagiriak bakarrik. Lekualdatze-lehiaketa honetan, gainera, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko hizkuntza-ziurtagiriak edo -tituluak baloratuko dira, baldin eta ACLESek (Asociación de Centros de Lenguas de Educación Superior) deialdiaren oinarrien I. eranskineko 5.5 atalean aitortzen baditu (ikus azken eguneratzea, 2024ko uztailaren 25ekoa).

3.21. Zer egin behar dut 6.5 atalean puntuazioa lortzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak 2007tik deitutako sartzeko hautaketa-prozedura bateko epaimahaikide gisa jardun badut?

Irakasleak Hornitzeko Zerbitzuak ofizioz emango die puntuazio hori sartzeko eta iristeko hautaketa-prozeduretako epaimahaikide gisa benetan parte hartu zuten lehiakide guztiei, eta ez da beharrezkoa izango hori eskatzea, ezta parte-hartze horren ziurtagiria aurkeztea ere.

3.22. Espezialitate berriak eskuratzeko epaimahai bateko kide izan izanak 6.5 atalean baloratzen da?

Ez da baloratzen.

3.23. Nola baloratzen da euskararen ezagutza?

6.7 atalean, hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa ez duten lanpostuetan bakarrik baloratzen da euskararen ezagutza.

Destinoen behin-behineko edo behin betiko esleipenean baino ez da aplikatuko, ez lehenago.

3.24. Espezialitate berri bat aitortu didate. 5.3 atalean barematzen al zait?

Inola ere ezin dira 5.3 atalaren arabera barematu. Beste espezialitate batzuk eskatzeko baino ez dute balio.

5.3 atalean, espezialitateak eskuratzeko prozeduraren bidez lortutako espezialitateak barematzen dira. (Prozedura hori EPE baten parte da).

Ez dira nahastu behar EPE bateko espezialitateak eskuratzeko prozedura eta titulazioen araberrako espezialitateak aitortzea.

3.25. 21/22 lekualdatze-lehiaketan parte hartu nuen, baina parte hartzeari uko egin nion behin-behineko ebazpena argitaratu zenean. Azken urteko baremoarekin parte hartu dezaket?

Bai, baremoari hel diezaiokezu, uko egin arren.

3.26. Jatorria desagertzean dagoen Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoan (591) izan eta Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan (590) integratutako funtzionarioei nola baloratuko zaizkie zerbitzuak merezimenduen baremoko 1.1 eta 1.2 ataletan?

Desagertzean dagoen Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoko (591) irakasle batek lehiatu nahi badu Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoko (590) lanpostuetarako, bere kidegoan (591) emandako zerbitzuak zenbatuko zaizkio baremoko 1.1 eta 1.2 ataletan; emandako zerbitzu horiek, ordea, joko dira eskatutako lanpostu hutsei dagokien kidegoan (590) egindakotzat, baldin eta gaur egun Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoari (590) dagozkion espezialitateetan emandako zerbitzuak badira.

Desagertzeaz dagoen Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoko (591) irakasle batek lehiatu nahi badu Lanbide Heziketako sektore berezietako irakasle espezialisten kidegoko (598) lanpostuetarako, bere kidegoan (591) emandako zerbitzuak zenbatuko zaizkio baremoko 1.1 eta 1.2 ataletan; emandako zerbitzu horiek, ordea, joko dira eskatutako lanpostu hutsei dagokien kidegoan (598) egindakotzat, baldin eta zerbitzu horiek badira gaur egun Lanbide Heziketako sektore berezietako irakasle espezialisten kidegoari (598) dagozkion espezialitateetan emandakoak.

3.27. Jatorria desagertzeaz dagoen Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoan (591) izan eta Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan (590) integratutako funtzionarioei nola baloratuko zaizkie zerbitzuak merezimenduen baremoko 1.1 eta 1.2 ataletan?

Jatorria desagertzeaz dagoen Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoan (591) izan eta Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan (590) integratutako irakasle batek lehiatu nahi badu Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoko (590) lanpostuetarako, bere kidegoan (591) emandako zerbitzuak zenbatuko zaizkio baremoko 1.1 eta 1.2 ataletan; emandako zerbitzu horiek, ordea, joko dira eskatutako lanpostu hutsei dagokien kidegoan (590) egindakotzat, baldin eta gaur egun Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoari (590) dagozkion espezialitateetan emandako zerbitzuak badira.

Jatorria desagertzeaz dagoen Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoan (591) izan eta Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan (590) integratutako irakasle batek lehiatu nahi badu Lanbide Heziketako sektore berezietako irakasle espezialisten kidegoko (598) lanpostuetarako, bere kidegoan (591) emandako zerbitzuak zenbatuko zaizkio baremoko 1.1 eta 1.2 ataletan; emandako zerbitzu horiek, ordea, joko dira eskatutako lanpostu hutsei dagokien kidegoan (598) egindakotzat, baldin eta zerbitzu horiek badira gaur egun Lanbide Heziketako sektore berezietako irakasle espezialisten kidegoari (598) dagozkion espezialitateetan emandakoak.

Gainera, irakasle horiei 590 kidegoan sartu zirenetik emandako zerbitzuak ere zenbatuko zaizkie baremoko 1.1 eta 1.2 ataletan, eta joko dira eskatutako lanpostu hutsei dagokien kidegoan (598) egindakotzat, baldin eta zerbitzu horiek badira gaur egun 598 kidegoari dagozkion espezialitateetan emandakoak.

3.28. Kontuan hartzen al da praktiketako funtzionarioen tutore izatea?

2024/2025 lekualdatze-lehiaketatik aurrera, oposizioa eta lehiaketa 2023-2024 ikasturtetik aurrera gainditzeagatik hautatutako izangaien praktika-faseko tutoretza ofizioz zenbatuko da. Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren praktiken tutoretza ofizioz egingo du Administrazio honek.

4. PLAZA ELEBIDUNAK

4.1 Zer da plaza elebidun bat?

Espezialitate jakin bat Ingelesez edo frantsesez ematen da irakaskuntza-programa elebidun baten barruan. (gehienbat ingelesez). Euskal Autonomia Erkidegoan, 2 lanpostu baino ez daude LPZn frantsesaren eskakizunarekin, eta bat ere ez alemanean. Informazio hau Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegorako balio du. Lehen Hezkuntzan ez dago lehiaketa honetarako deialdia egin daitekeen plaza elebidunik.



4.2 Zer baldintza erantsi behar ditut ingelesez edo frantsesez espezialitate bat emateko?

ACLESek (Asociación de Centros de Lenguas de Educación Superior) eta honako titulu hauek aitortzen dituzten titulu, gaikuntza edo ziurtagiriren bat egiaztatzea:

- Filologia, Filosofia eta Letretako lizentziatura (Filologia atala) eta Itzulpengintza eta Interpretazioko lizentziatura, eskatutako hizkuntzan, edo gradu baliokidea.
- Itzulpengintza eta Interpretazioko diplomatura, eskatutako hizkuntzan.
- Eskatutako hizkuntzan atzerriko hizkuntzako gaikuntza edo espezialitatea duen Maisu-Maistra.
- Eskatutako hizkuntzan atzerriko hizkuntzan Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B2 maila edo handiagoa dutela egiaztatzea, aipatutako 73/2012 Dekretuaren eranskinean agertzen diren titulu edo ziurtagiriren baten bidez. (2022ko ekainaren 16ko Aginduaren bidez eguneratutako eranskina).

4.3. Frantsesa, Ingelesa edo Alemana espezialitateak elebidunak dira?

Ez. Frantsesa, ingelesa edo alemana espezialitateetako eskaerek ez dute inola ere elebitasun-koderik eramango: 0 - ELEBITASUNIK GABE izango dira.

5. IKASTETXEA AUKERATZEKO LEHENTASUNA

5.1. Nork balia dezake IKASTETXEA aukeratzeko Lehentasun-eskubidea?

Ikastetxe batean behin betiko destinoa duten edo izan duten parte-hartzaileek, ikastetxe berean behin betiko destinoa lortzeko, lehentasun-eskubidea borondatez erabil dezakete, honako KASU hauetako batean badaude:

- Ikastetxean behin betiko izaeraz betetzen zuten plaza **Kentzeagatik**, behin betiko beste destino bat lortu arte.
- Ikastetxean behin betiko izaeraz betetzen zuten lanpostua **Aldatzeagatik**, behin betiko beste destino bat lortu arte.
- Ordutegi nahikorik ez izateagatik, beren ikastetxeek **Lekuz aldatzeagatik**, ikasturte honetan.
- **Espezialitate berriak eskuratzeagatik** (Bigarren Hezkuntzako katedradunen eta irakasleen kidegoetarako eta desagertzeaz dauden Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegorako). Lanpostu berria lortu ondoren, beste espezialitate bat eskuratzean bakarrik baliatu ahal izango da eskubide hori.

5.2. Nola bete behar da eskubidea ikastetxea aukeratzeko lehentasun-eskubideaz baliatzeko?

“IKASTETXEA AUKERATZEKO LEHENTASUNEZKO ESKUBIDEAZ BALIATUZ GERO, ONDORENGOAK BETE” atalean, IKASTETXEAREN KODEA eta ARRAZOIA adierazi behar dituzu (zein arrazoiakatan parte hartzen duzun). Era berean, lehentasun-ordenaren arabera adierazi beharko du eskubide horretaz baliatzeko lanpostu-mota (espezialitatea) eta hizkuntza.



ESP – espezialitatea atalean, honako hau hautatu beharko duzu: “DPL. Lehentasun- eskubidea” (horrela, ikastetxe edo herri baten eskaera herri edo barruti baterako lehentasun-eskubidearekin gauzatzen dela identifikatuko da. GARRANTZITSUA: ez badu adierazten “DPL. Lehentasun-eskubidea”, aplikazioak beste eskaera bat bezala hartuko du, inolako lehentasun-eskubiderik gabe.

Horrez gain, eskubide hori baliatzen duen ikastetxea ez den beste ikastetxe batzuetako plazak eskatu nahi baditu, lehentasun-eskubidetik kanpo eskatu ahal izango ditu, “ESKATZEN DITUEN PLAZAK”

5.3 IKASTETXEA aukeratzeko Lehentasun-eskubidea eralbiltzen badut, Herri Lehentasun-eskubidea erabil dezakezu?

Bai. Deialdiaren hamabosgarren eta hamaseigarren ataletan jasotako baldintzak betetzen dituzten parte-hartzaileek ikastetxe baterako lehentasun-eskubidea edo herri edo barruti baterako lehentasun-eskubidea erabili ahal izango dute.

Ikastetxe baterako lehentasun-eskubidea erabiltzeak destinoa lortzeko lehentasuna ematen die herri edo barruti baterako lehentasun-eskubidea erabiltzen dutenei.

5.4 Ikastetxerako lehentasun-eskubidea daukat. Lehentasuna al dut plaza batean nik baino puntu gehiago dituen pertsona baten aurretik?

Bai. Ikastetxe baterako lehentasun-eskubideaz baliatzen direnak lehentasuna dute, destinoa lortzeko gainerako parte-hartzaileen aldean, nahiz eta gainerako parte-hartzaileek puntuazio handiagoa izan.

5.5 Herri/barruti baterako lehentasun-eskubidea dut. Lehentasuna al dut plaza batean nik baino puntu gehiago dituen pertsona baten aurretik?

Ez. Programak herri/espezialitateko plaza bat “erreserbatuko” du (ez esleitu) borondatezko eskaera orokorren artean; jarraian, herri/barrutiko lehentasun-eskubidearen borondatezko eskaerei esleitzen jarraitzen du.

Nolabait, lehentasunezko eskubiderik ez duen eta puntu gehiago dituen beste pertsona baten aurrean plaza bat bermatzen dio aplikazioak, baina plaza zehatza harekin lehian lortuko du, betiere plaza bat baino gehiago badago.

6. HERRIA AUKERATZEKO LEHENTASUN-ESKUBIDEA

6.1 Nork erabil dezake HERRIA aukeratzeko Lehentasun-eskubidea?

Herri bereko ikastetxeetan behin betiko destinoa lortzeko lehentasun-eskubideaz baliatu ahal izango dira, borondatez, honako KASU hauetako batean dauden parte-hartzaileek:

- Ikastetxean behin betiko izaeraz betetzen zuten plaza Kentzeagatik edo Aldatzeagaitik.
- Ordutegi nahikorik ez izateagatik, beren ikastetxeek Lekuz aldatzeagatik, ikasturte honetan.
- Administrazio Publikoan beste lanpostu bat betetzeagatik, behin betiko betetzen zuten irakasle-plaza galduta, betiere lanpostu hori utzi badute.
- Behin betiko betetzen zuten lanpostua galdu izana, senideak zaintzeko borondatezko eszedentzia-egoera eman ondoren.
- Kanpoko irakasle-lanpostuetako atxikipena uzteagatik (Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren kudeaketa-eremuan irakaskuntzan berriz hastea).
- Behin betiko azken destinoa galtzeagatik, epaia betearazteagatik edo administrazio-errekursoaren ebazpenagatik.
- Ezintasun iraunkorragatiko erretiroaren ondoren zerbitzu aktiboan birgaitzeagatik.

6.2 Nola bete behar da eskubidea Herria aukeratzeko lehentasun-eskubidez baliatzeko?

Herria aukeratzeko lehentasun-eskubidea erabili nahi duten irakasleek “HERRIA AUKERATZEKO LEHENTASUNEZKO ESKUBIDEA ERABILTZEN BADA, BETE” atalean HERRIAREN KODEA eta ARRAZIOA adierazi behar dituzu (zein arrazoikasutan parte hartzen duzun).

Eskaeraren atal horretan bertan, lehentasun-ordenaren arabera, eskubide horretaz baliatu nahi duten espezialitateen eta hizkuntza-eskakizunaren kodeak ere adierazi behar dira.

Gainera, ikastetxe jakin bat lortzeko, **lehenik eta lehentasun-ordenaren arabera**, eskabidearen atalean “ESKATZEN DITUEN PLAZAK” adierazi beharko ditu eskubidea duen **udalerriko ikastetxe guztiak**.

ESP – espezialitatea atalean, honako hau hautatu beharko duzu: “DPL. Lehentasun- eskubidea” (horrela, ikastetxe edo herri baten eskaera herri edo barruti baterako lehentasun-eskubidearekin gauzatzen dela identifikatuko da. GARRANTZITSUA: ez badu adierazten “DPL. Lehentasun-eskubidea”, aplikazioak beste eskaera bat bezala hartuko du, inolako lehentasun-eskubiderik gabe.

GARRANTZITSUA: Herriko ikastetxe guztiak eskatzen ez badira eta hutsik badago edo geratzen bada, Administrazioak “ESKATZEN DITUEN PLAZAK” zerrendara gehituko ditu, II. eranskinean agertzen diren hurrenkeran, lehentasun-eskubidetik kanpo dauden ikastetxeak izan ezik.

Herriaren kodea bakarrik adierazten baduzu, hautatutako herriko edozein ikastetxetan egingo da esleipena, baldin eta lanpostu hutsik badago, deialdiaren II. eranskinean agertzen den hurrenkeraren arabera.

6.3. Herri baterako lehentasun-eskubidea dut duela hiru urtetik, baina iaz ez nuen Lekualdatze-Lehiaketan parte hartu. Parte har dezaket aurten lehentasun-eskubidearekin?

Herri baterako lehentasun-eskubidea zenuenetik lehenengo 2 urteetan erabili baduzu, azken urtean izan ezik, aurten ezin izango duzu lehentasun-eskubidearekin parte hartu.



Oraindik lehenetasun-eskubidea erabili ez baduzu, aurtan erabili ahal izango duzu.

Lehenetasun-eskubidea ez galtzeko, lehenetasun-eskubidea erabili ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioak egiten dituen deialdi guztietan parte hartu behar duzu, lehenetasun-eskubide hori baliatuz.

6.4. Herri baterako lehenetasun-eskubidea dut. Zer ikastetxe eskatu behar ditut? Espezialitate baterako lehenetasun-eskubidea erabili dezaket, nahiz eta bi espezialitatetarako gaituta egon?

Herri lehenetasun-eskubidea baliatzen denean, lehenetasun-eskubidea baliatzen den herriko ikastetxe guztietako destinoetarako parte hartzen da, borondatezko lanpostuak eta lehenetasun-eskubidetik kanpo daudenak izan ezik.

Gaituta dagoen espezialitate guztietan parte hartzen da, eskabidean ezartzen den lehenetasun-ordenaren arabera.

6.5. Herri baterako lehenetasun-eskubidea baliatuz parte hartuko dut, baina ez dakit zer kode jarri behar dudan.

Ezagutzen ez baduzu, «Bilatu» botoiari emanda bilatu ahal izango duzu. Kontuan izan herri eta barruti baterako eskubidea baliatzea bateraezina dela.

Ohar garrantzitsua: batzuetan, ikastetxearen herria edo eremua zalantzazkoa da; komeni da II. Eranskina – Lekualdatze-lehiaketaren deialdiko ikastetxeen zerrenda (2024ko azaroaren 4ko EHAA) kontsultatzea. Bertan, ikastetxeei buruzko informazioa dago, dagozkien herri eta eremuekin batera.

6.6. Ikastetxerako eta herrirako lehenetasun-eskubidearekin parte hartu nahi dut. Bi eskabide aurkeztu behar ditut?

Ez. Eskabide bakarra aurkeztu behar du, eta bertan adierazi behar ditu parte hartzeko atalak, ikastetxerako lehenetasun-eskubidearena eta herriarena, hurrenez hurren.

6.7. Ezabatua naiz eta herri baterako lehenetasun-eskubidearekin parte hartzen dut. Uko egin dezaket lehiaketaren behin-behineko ebazpena argitaratzen denean uko egiteko ezarritako epean?

Ez. Ezabatu zarenez, nahitaez parte hartu behar duzu, eta, beraz, ezin diozu uko egin lehiaketan parte hartzeari, ez eta lehenetasun-eskubidea erabiltzeari ere.

Borondatez parte hartzen duzunean bakarrik egin diezaiokezu uko.

6.8. Ez dut herri zehatzik aurkitzen aplikazio informatikoan

Lekualdatze-lehiaketako herrien izenak EUSTATetik datoz, eta, beraz, batzuetan ez datoz bat EUSTATEk ematen digun eta lekualdatze-lehiaketan erabiltzen den izen ezagunarekin. Hauek dira kasurik ohikoenak:

- San Vicente de Barakaldo, Barakaldo-ren orde
- Concha, Carranza-ren orde
- Santa Lutzia, Tolosa-ren orde, ea

Goitibeherako menuan herririk aurkitzen ez baduzu eta eskatu nahi duzun/dituzun ikastetxeak ezagutzen badituzu, kodea zuzenean tekleatu dezakezu zentroko tiraderan, EHAAn aurkitu ondoren.

7 ZAILTASUN BEREZIKO IKASTETXEAK

7.1. Zer da zailtasun bereziko zentroa??

Hezkuntza Sailak berariaz sailkatu du ikastetxe hori, bere lanpostuak betetzeko zailak direlako, inguruabar bereziak direla eta. Zailtasun berezikotzat jo behar dira LPZn.

Zentro eta lanpostu hauek ez dira ofizioz esleitzen nahitaezko ezein parte-hartzaileri. Ikastetxe horietan egon daitezkeen lanpostu hutsak berariaz eta beren borondatez eskatzen dutenei bakarrik esleitu ahal izango zaizkie.

7.2. Behin-behineko destinoa duen funtzionarioa naiz, 2017/2018 ikasturtean zailtasun bereziko zentro batean egon nintzen destinatuta, baina ikasturte honetan kalifikazio hori ez duen ikastetxe batean nago. Ikastaro bati dagokion puntuazioa emango al didate baremoko 1.1.3 atalean?

Bai, baina zailtasun bereziko zentro batean emandako denbora bakarrik.

8. ESLEIPENAK

8.1 Uko egin diezaioket behin-behinean esleitutako destinoari?

Behin-behinean esleitutako destinoari uko egin ahal izango diozu, baldin eta borondatez parte hartzen baduzu (behin betikoak eta eszedenteak).

Nahitaezko parte-hartzaileek ezin diote uko egin behin-behinean esleitutako destinoari.



8.2 Nola funtzionatzen du nahitaezko esleipenak?

Aplikazioa puntuazioaren arabera dagokion behin-behineko parte-hartzaileari iristen denean, lehendabizi borondatezko eskaerei erreparatzen die eta, ondoren, ezer aurkitzen ez badu, behin-behinekoa den lurralde historikoan jarri ez dituen ikastetxeak eta espezialitateak garatzen ditu.

Beraz, programa saiatzen da, momentu berean, parte-hartzaileari destinoa ematen borondatezko eskaeren artean, edo nahitaez esleitzen.

Lehendabizi borondatezko eskaerei begiratzen diela eta, aurkitzen ez badu, hurrengo parte-hartzaileari pasatzen zaiola pentsatzea ideia okerra da.

8.3 Borondatezko moduan parte hartzen badut eta resultatako plaza bat lortzen dut, plaza hori baztertu dezaket, azkenean interesatzen ez bazait?

Bai, egia esan, lekualdatze-lehiaketan parte hartzeari uko egiteko eskubidea baliatuko zenuke, eta, horrela, erresultetan lortutako plazari uko egingo zenioke.

8.4 Zer da “resulta” bat?

“Resulta” bat lehiaketan bertan sortzen den lanpostu hutsa da, aurreko titularrak beste destino bat lortu duelako. Ondorioz, lanpostu huts berri hori ezin izan da aldeztatik eskaini.

8.5 Lekualdatze-lehiaketan sortzen diren “resulta” guztiak eskaintzen dira?

Ez, bere funtzionamendua hezkuntza-plangintza orokorrean aurreikusita dagoenean bakarrik eskainiko dira.

8.6 Parte hartzeko modalitatearen arabera destinoa ofizioz esleitzea.

Taula honetan laburbiltzen da administrazioak zer kasutan esle dezakeen destinoa ofizioz, parte hartzeko modalitatearen arabera:

Borondatezko parte-hartzearen modalitateak		Parte-hartzaile hauei ezin zaie destinoa ofizioz esleitu.
A	BEHIN BETIKO DESTINOA	
B	BORONDATEZKO ESZEDENTEA	

Borondatezko parte-hartzearen modalitateak	Parte-hartzaile horiei ofizioz esleitu dakieke destinoa:	
	Parte hartzen ez badute	Ez badago borondatezko artean



C	DISZIPLINA-ESPEDIENTEAREN EBAZPEN IRMOA	X	
D	SENTENTZIA EDO ERREKURSO-EBAZPENA BETETZEAGATIK	X	
E	BETETZEN ZUTEN BEHIN BETIKO LANPOSTUA KENDU EDO ALDATZEA	X	
F	BEHIN-BEHINEKO DESTINOAREKIN ITZULTZEAGATIK	X	X
I	BEHIN BETIKO IZAERAZ BETETZEN ZENUEN LANPOSTUA GALTZEA EKARRI DUTEN ANTZERAKO ARRAZOIENGATIK	X	
J	INOIZ BEHIN BETIKO DESTINOA LORTU EZ DUEN BEHIN-BEHINEKO LANGILE IZATEAGATIK	X	X
K	PRAKTIKETAKO FUNTZIONARIOAK	X	X

G	NAHITAEZKO ESZEDENTZIA	Interes partikularragatiko eszedentzia-egoeran geratuko dira.	Interes partikularragatiko eszedentzia-egoeran geratuko dira.
H	EGINKIZUN-GABETZEA, ZEHAPENA BETE ONDOREN		

8.7. Zein plaza dira OFIZIOZ EZIN direnak esleitu?

Inolaz ere ez dira ofizioz esleituko honako hauei dagozkien plazak:

- Zereginen Ikasketa Gela
- DBHko lehen bi mailetako lanpostuak
- Helduen Hezkuntzako ikastetxeak
- Lanpostu ibiltariak
- Curriculum-aniztasuna
- Hizkuntza-errefortzua
- Ingeleseko edo frantseseko irakaskuntzak
- HHE ikastetxeetan Hezkuntza Orientazioko espezialitateko ibiltariak

8.8. Kendu egin naute eta ez dut zentrorako, herrirako edo eremurako lehentasun-eskubidea erabiltzen. Ofizioz esleitu diezadakete plaza bat?

Ezabatutako egoeratik parte hartzen duten eta lehentasun-eskubidea erabiltzen ez duten irakasleek gainerako parte-hartzaileen baldintza berberetan parte hartzen dute.

Plaza bat jabetzan ez izateagatik parte hartzera behartuta dauden eta ofizioz plaza bat esleia dakiekeen parte-hartzaileei ez bezala, kendutako parte-hartzaileei beren borondatezko eskaeretan eskatutako plazaren bat baino ez zaie esleituko. Ezin izango zaio plazarik esleitu ofizioz, eta ikasturte hasierako esleipenetan parte hartu beharko luke.

8.9. Kendu egin naute eta ez dut herri edo eremu baterako lehentasun-eskubidea erabiltzen. Zer plaza esleitu diezazkidakete?

Lehenik eta behin, herrian edo lehentasuneko eremuan borondatez aukeratutako plazaren artean plaza bat esleitzen saiatzen gara.

Esleitzeko plazarik ez balego, bigarren fasean udalerrian edo lehentasun-eremuan dauden plazen artean osatzen/esleitzen saiatuko gara.

9. OROKORRAK

9.1 Gela egonkorreko PTE edo ZIG.PTE plaza bat plaza berezia al da?

Plaza berezia da, eta, beraz, Plaza Berezien Lekualdatze Lehiaketan aterako litzateke, EZ lekualdatze-lehiaketa honetan. Lekualdatze-lehiaketa honetan ez da plazarik deitzen.

9.2. Zer da Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiria?

Izaera sexualeko deliturik ez dagoela edo, hala badagokio, delitu horiek egin direla egiaztatzeko aukera ematen duen ziurtagiria da. Sexu Delitugileen Erregistro Zentralak emandako ziurtagiriek jakinarazten dute organo judizialek emandako kondena irmoak erregistro horretan jasota daudela, ematen diren egunean. Beraz, ematen duten informazioa, ematen den egunean dagoen informazioa ziurtatzera mugatzen da.

Sexu-delituen ziurtagiria, Espainiako araudiaren arabera, adingabeekin lan egiteko normalean ematen den ziurtagiri bakarra da, eta, beraz, Espainian bakarrik balio du, eta ez da apostillarik ez legeztapenik egiten.

Beste herrialde batean adingabeekin lan egin ahal izateko ziurtagiri bat nahi baduzu, Aurrekari Penalen ziurtagiri bat eskatu beharko duzu, eta hari apostilla eman edo legez tatu, lege-ondorioak izango dituen herrialdearen arabera.

9.3. Aurkeztu behar dut?

Bai, Adingabeen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoak, 26/2015 Legeak aldatuak, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboak aurkezteko betebeharra ezartzen du adingabeekin ohiko harremanetan lan egiten duten profesional eta boluntario guztientzat.

9.4. Nola egiazta dezaket ez nautela kondenatu sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituen batengatik?

Bi aukera daude:

1) Administrazioari baimena ematea Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean kontsulta egiteko, parte hartzeko eskaeraren laukitxoia betez.

2) Bestela, ziurtagiria zuzenean aurkeztu behar du. Esteka honetan duzu eskatzeko informazio guztia: Sexu Delituen Ziurtagiria. Telematikoki eskatzen badu, berehala eskuratuko du, baina ziurtagiri elektronikoa behar da. Aurrez aurre eskatzen baduzu, egun batzuk beharko dituzu; beraz, aldeztu aurretik eskatu beharko duzu, deialdi honetan ezarritako eskakizunak betetzeko.

9.5. Maisu-maistren kidegoko bi espezialitate aitortuta ditut Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpen bidez, dauzkadan titulazioetan oinarrituta. 5.3 atalean barematuko zaizkit?

Inola ere ez. Zuzendariaren Haur eta Lehen Hezkuntzako espezialitatea eskuratzeko ebazpen baiesle horiek lekualdatze-lehiaketan beste espezialitate batzuetan parte hartzeko baino ez diote balio. 1594/2011 Errege Dekretuaren arabera aitortutako espezialitateak dira.

Baremoaren I. eranskineko 5.3 atalean, Espezialitateak Eskuratzeko hautaketa-prozedura baten barruan lortutako espezialitateak barematzen dira, orain arte irakaskuntza ertaineko espezialitateetarako baino ez baita deitzen. Prozedura hau aurreko paragrafoan adierazitakoaz bestelako errege-dekretu batzuen bidez arautzen da.

9.6. Aholkulari eta euskara espezialitateetarako gaitzen duen titulazioa daukat, baina nire eskaera desestimatu zaizkit. Nola eska dezaket bi espezialitateetako plazak lekualdatze-lehiaketan aitortzen ez baditut?

1594/2011 Errege Dekretuak espezialitate jakin batzuk soilik aintzatestea baimentzen du, eta horien artean ez dago aholkularirik edo euskararik. Espezialitate horietan lekualdatze-lehiaketaren deialdian parte hartu ahal izateko, bete beharreko baldintzak arautzen dira. (eigarren oinarria, 2 eta 3 puntuak). Bi baldintza bete behar dira:

Deialdian adierazitako titulazioaren/profilaren baldintzak betetzea.

Aldez aurretik behin betiko destinoa lortu izana oposizioko espezialitatean.

Garrantzitsua da adieraztea bi espezialitate hauek lekualdatze-lehiaketetan parte hartzeko baino ez direla balio. Lehiaketaren barruan parte-hartzailearen fitxan adierazitako bi baldintzak betetzen baditu, Aholkulariaren espezialitate-kodea (81) eta Euskara (80) agertuko dira. Hala ere, ez dira inola ere islatuko bi espezialitate hauen azterketak zure zerbitzu-orrian.

9.7. Ikusi dut lehen aldiz zenbatuko direla karrerako funtzionarioei praktiketako funtzionario edo bitarteko funtzionario gisa emandako zerbitzuak. Zerbitzu-orria aurkeztu behar da?

Ez. Beste batzuetan bezala, antzinatasunaren atalak ofizioz barematzen ditu Administrazioak, zure zerbitzu-orrian jasotako zerbitzuen arabera.

Berrikustea gomendatzen dizugu, eta akatsen bat edo absentziarik aurkitzen baduzu soilik jakinarazi beharko duzu.

9.8. Eta bitarteko funtzionario gisa betetako zuzendaritza- edo irakasle-karguak. Zenbatuko dira?

Hala da, lehen karrerako funtzionario-denboraldiei zerbitzuak zenbatzeko zegoen muga desagertu egiten da.

4.1 eta 4.2 ataletako karguak ofizioz zenbatuko dira; 4.3 atalekoak (tutoretzak, zuzendaritzak, etab.), berriz, egiaztatutako egin beharko dira.



Azken kasu horretan, baremoaren aukera hartu behar da kontuan; izan ere, parte hartu zenuen azken lekualdatze-lehiaketaren aurreko irakaskuntza-funtzioak badira, "Barematze berria" aukera hautatu eta dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko duzu.

Kontuan izan 4.3 atalak gehienez 10 puntu dituela eta 2024/2025 lekualdatze-lehiaketatik aurrera tutoretza bakoitza 1,5 punturekin zenbatzen dela.